




PERTSONA BAKARRA ETA BI HIZKUNTZA?

NOLA ANTOLATZEN DIRA HIZKUNTZAK GARUNEAN? NOIZ AKTIBATZEN DA BAKOITZA? ELKARRI ERAGITEN AL DIOTE? NOLA?



1. NOLAKOA DA BI HIZKUNTZEN ELKARBIZITZA GARUN BATEAN?




A. Hizkuntza bakoitza alde batetik

B. Hizkuntzak integraturik daude




ESPERIMENTUA


Proba honetan, hitz errealak eta asmatutakoak ikusiko dituzu, eta zure eginbeharra errealak zeintzuk diren erabakitzea izango da.




Hizkuntza ezberidnetako (gaztelania-euskara-ingelesa) hitzek antzekotasunak dituztenean hauek identifikatzea errazago izaten da. Hori hitza hizkuntza bietan batera prozesatzen dugulako gertatzen da.




2. ZER GERTATZEN DA HITZ EZBERDINAK ENTZUTEAN? ZEINTZUK DIRA ERRAZAGO? ZERGATIK?



tomate tomate



arrautza huevo





¿otso? ocho
zortzi

A. Forma zein esanahian antza dute

B. Esanahian antza dute; forman ez

C. Forman antza dute; esanahian ez

3. NOLA AKTIBATZEN DIRA HIZKUNTZAK GARUN ELEBIDUNEAN?



A. Une horretan behar duzuna baino ez da aktibatzen.

B. Biak aktibo daude, baina unearen arabera lehentasuna dute.

C. Une oroio daude aktibo!

EZETZ ASMATU OKERRAK ZEINTZUK DIREN?



A. Elebidunak, norekin hitz egiten ari diren kontuan hartuz, erraztasunez pasa daitezke hizkuntza batetik bestera .

B. Nire lehen hizkuntzak soilik du eragina ikasi edo ikasiko ditudan besteetan.

C. Eskualde elebidunetan, hemen bezala, alderdi historiko/sozialek eragina dute hizkuntzen arteko erlazioan.

D. Hizkuntza batetik bestera aldatzea beti da zaila!

A. Elebidunak, solaskidea nor den, erraztasunez pasa daitezke hizkuntza batetik bestera. ZUZENA!

Pertsona **elebatarrek erregistroa aldatzen dute** zuzentzen ari diren mintzalagunaren (seme-alabak, nagusia, laguna) arabera. Pertsona **elebidunek berdina egiten dute hizkuntzarekin**. Adibidez, haur batzuek guraso bakoitzarekin hizkuntza batean hitz egiten dute. Batzuek erraztasun gehiago dute, sarri egitera ohituta baitaude.

B. Nire lehen hizkuntzak soilik du eragina ikasi edo ikasiko ditudan besteetan. OKERRA!

Bigarren hizkuntzan hitz-jarioa lortzeak eta luzaroan hizkuntza hortaz inguraturik egoteak ama-hizkuntzan eragina du. Elebidunek **lehen hizkuntzako soinuak pixka bat ezberdin ahoskatu ohi dituzte** (hain da txikia aldea ezen laborategian baino ezin baita antzeman). **Bigarren hizkuntzarekin antzekotasunak dituzten hitzak** errazago prozesatzen dituzte. Hau ez da abantaila edo desabantaila, soilik elebatar eta elebidunen artean ezberdintasun txiki bat dagoela esan nahi du, baita bere ama-hizkuntzan ere. Horrez gain, **hizkuntzak garunean integraturik daudela eta elkarri eragiten diotela** ere esaten digu.

C. Eskualde elebidunetan, hemen bezala, alderdi historiko/sozialek eragina dute hizkuntzen arteko erlazioan. ZUZENA!

Hizkuntzak hizlari eta gizartearekin loturik daude. Zeharo ezberdina da pertsona bat elebiduna izatea bere herrialdean/eskualdean bi hizkuntza ofizial daudelako edo bigarren hizkuntza hori lanegatik edota atzerrian bizi delako ikasten badu. Jendeak baldintzen arabera oso ezberdin joka dezake. Bigarren hizkuntza zenbateraino ikasten duen eta zenbat erabiltzen duen horren menpe dago.

D. Hizkuntza batetik bestera aldatzea beti da zaila! OKERRA!

Hizkuntzen artean aldatzean **makalagoak izan ohi gara**, une bakoitzean aktiboago dagoen hizkuntza aldakorra baita. Batzuetan, hizkuntza ezberdinean hitz egin nahi duten bi pertsonekin gaudenean hau hauteman dezakegu. Baliteke hizkuntza batetik bestera pasatzeko momentuan zertxobait kostatzea, baina berehala ohitzen gara normalean. Are gehiago, **zenbat eta sarriago egin, errazagoa izango da zuretzat**.

Aitzitik, **badaude elebidunak, beharrik ez izanda ere, hizkuntzaz aldatzen dutenak; behar dituzten hitzak** beste hizkuntzan **errazago topatzen dituztelako** beharbada, edo **hitz horiek hizkuntza jakin batean esateko ohitura dutelako** (esaterako, <<ay, ama>>, <<o sea>>, <<vale>> edo <<agur>>).